

OHARRAK

Barne erabilera - Idazkiak

10.2.1.a. Info. Orri edo ohar informatiboak

AZALPENA:

ZER DIREN. Lan egiten dugun lekuan, jendeari zerbaitez ohartarazteko eta informatzeko erabiltzen diren komunikazioak dira abisu edo oharrak. Hauek DIN A4 batean jartzen ditugu eta normalean letra etzanean. Ohar horiek kanpo zein barne erabilerarako baliagarriak izan daitezke, hau da, bai bezero edo erabiltzaileek (kanpo erabilera), bai langileek (barne erabilera) irakur ditzaten.

EDUKIA.

Logoa. Oharretan, erakunde edo enpresaren logoa jartzea komeni da, goian, eskuinaldean.

Izenburua. Oharretan, izenburua oso garrantzitsua da. Horregatik, "Oharra-Aviso" ez jartzea gomendatzen da, eta, horien ordean, ohar horren edukia laburtzen duen izenburua jartzea, adibidez, "Ordutegia-Horario" edo "Erabiltzeko arauak-Normas de uso".

FORMATUA.

Euskararen kokapena. Euskarari lehentasuna emateko ezkerrean kokatuko dugu eta gaztelania, eskuinaldean. Datu batzuk, bietarako berdinak direnak (orduak, datak edo kopuruak, adibidez), erdian jartzen dira eta ez dira errepikatuko bi zutabeetan.

Letra tamaina. Testu masaren arabera, letra handitu edo txikitu daiteke. Hala ere, erreferentzia moduan, 26-36 tamaina erabiliko dugu. Testu asko dagoenean, letra tamaina zertxobait txikitzen da: 20-26.

Letra mota. Arial letra erabiliko da, bai euskarazko bai erdarazko testuetan.

Lerrokatzea. Izenburuak eta testuak erdian lerrokatzen dira. Zenbait kasutan, testuak hobe da ezkerretara lerrokatzea, batez ere, luzeak direnak eta buletak daudenean. Ez da punturik jarri behar testu amaieran.

Letra xehea. Oharretan, letra xehea erabiltzea gomendatzen da, testu masa txikiagoa izan dadin.

ADIBIDEA:

Urteari agurra

Bihar, abenduak 23, urtero egiten dugun moduan, "lunch" bat izango dugu 2006 urtearen amaiera eta 2007aren ongi etorria ospatzeko.

Lekua: 4. solairuko 6. gela
Ordua: 14:00

Despedida del año

Mañana 23 de diciembre tendremos un "lunch" como hacemos tradicionalmente como despedida del 2006 y bienvenida de 2007.

Lugar: sala 6ª del 4º piso
Hora: 14:00

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera

De lunes a viernes

8:00-14:00

16:00-19:00

Larunbatetan itxita

Sábados cerrado

ESKULARRUAK / GUANTES

Eskularruak erabiltzea beharrezkoa da material astunarekin lan egiteko

Es obligatorio el uso de guantes para manejar material pesado